

IZARRA
ANTZERKI-
SALLA

4' g. zenbakia

A. Larraitz

Hendibe'tarren larriyak

ATAL BATEKO ANTZERKIA

DONOSTIA/N
MAESTRIK, Mikel & C. ATEK ESKUEAK
Pasealekuak, 14, lehen gelaia

1919

Digitalizan 3

ATV
31402

IZARRA

Antzerki salla

Colección de comedias

AGERTUAK

| | |
|---|------|
| 1. ^a : <i>Jauregi-errrotako astoa.</i> Alfonso M. ^a Zabala'k astinatu-tako bakarrizketa. (N. ^o 1. Monólogo original de A. M. de Zabala) | 0,50 |
| 2. ^a : <i>Urruti-izketa.</i> A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal-batekoa, ta gizonezkoak bakarrik egitekoa. (N. ^o 2. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. de Zabala) | 1,00 |
| 3. ^a : <i>Melitona'ren bi senarrak.</i> A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal-batekos, ta gizonezkoentzat. (N. ^o 3. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. de Zabala) | 1,00 |
| 4. ^a : <i>Mendiñe tarren larrivak.</i> A. Larraitz'en antzerkia. Atal-batekos, ta gizonezkoentzat. (N. ^o 4. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Larraitz) | 1,00 |

LAISTER AGERTZEKO

| | |
|---|------|
| 5. ^a : <i>Utz bearri!</i> Dehoka'tar Goserio'k euskeratutako antzerkia. Gizonezkoentzat, atal batean. (N. ^o 5. Comedia en un acto, para hombres, traducida por Goserio de Denoka) | 1,00 |
|---|------|

**Antzerki oek guziak, Donostia'n, Leizaola'ren idaztitegian
(Garibay, 28) daude salgai.**

N- 70349
F 74306

ANV
31402

A. LARRAITZ

MENDIBETARREN LARRIYAK

ANTZERKIA



DONOSTIA'N
MARTIN, Miera y Comp. ^{2^a}KEN ETSEAN
Fuenterrabia, 14, beko gelan

1919



Mendibe'tarren larriyak

IRUDIGILLEAK:

| | |
|-----------|-----------------------|
| Alkaria. | |
| Lukax... | Ostataria. |
| Martiri. | Pelotariak. |
| Pelix... | |
| Hizax.... | Ostatuko mutilla. |
| Kokotx. | Amabitxa (Algaztill). |

I

Mutill koskorraak, danbolintzuak ta aber.

Iraditegiko ezkerraldian agertuko da Lekax en ostattua. Atzian bide bat, eta urrutian mendiya. Eskubialdian arbolak, eta oyen onduan mai ta aulkia. Danbolita, San Juan-sñua juaz, ta utzetik mutill koskorraak sumpaka ta irrintzika bidean pasatzen diru, aide batetik bestera.

ALKATIA eta LUKAX

- ALK. Bai, bai, pesta ederrak dauzkagu.
- LUK. Alai dabil emen jendia, biyar erriko pestak ditugulako, erriyan zer gertatzen dan konturatu gabe.
- ALK. Bai, gauzak gaizki daude.
- LUK. ¡Ain gaizki! Albistari onek dionez beintzat, gizon gaizgille oiek Gipuzkoa'ra sartu omen dira.
- ALK. Alaxe irakurri det neronek ere.
- LUK. ¿Baña gaurko berrik Irakurri aldituzu?
- ALK. Ez, ¿zer diote paperak?
- LUK. ¿Zer dioten? Entzun, entzun. (Albistari bat Irakurria) «Euskalerriko mendietan dabillen gizon gaizgille pilla, Gipuzkoan sartu da, ta beriak egiten así da. Atzo gabian, mikeleteak arrapatu zituzten mendi zulo batean; tiroka gogor eginda gero, kartzelara ekarri zituzten lau, baña beste bik,

gaiztoenak, amorratuenak, iges egin zuten, eta puñalez, kutxilloz ta pistolaz beteta dabiltz...»

ALK. ¡Arrayua!

LUK. «Ta gafiera...—¡au okerragua da!—» pardel batian dinamita ta bonbak dituzte!»

ALK. Erri bat oso osorik aidan botatzeko aña badira oik.

LUK. Baita zortzi erri kixkaltzeko aña ere.

ALK. ¡Au dek lana, au!

LUK. Ixo, ixo; guzitan okerrena orain datorrena da. (Irakurriaz)

«Gero ere gaizgille oiek ikusi omen zituzten... ta Mendibe aldera omen zijoazen».

ALK. ¿Onera? San Antonio gloriosoa: ¡jarren!, lagun egiguzu.

¿Baña Mendibe esaten aldu?

LUK. ¿Orain zer egin bear degu, Alkate jauna?

ALK. Nik ez dakit oraintxe zer egin. Ikaragarrizko ekaitz gogorren bat gañian degu.

LUK. Eta ez nola naikua ere.

ALK. Orren azkar ez bildurtu beintzat.

LUK. ¿Bildurtu? Ez alajainkuia.

ALK. Onenian gure erri aldera etorri biarrian Napar aldera artuko zuten. Baña bada ez-bada ere obia izango da aurretik biar diran neurrik artzea.

LUK. Pesta aurreko komeri ederra jarri zaigu oraintxe.

ALK. Begira; zer gerta-ere, gaizgille oik izugarrizko astuak emen dira ta, erriko jendeari deitu ta garbi esatera nua zer gertatzen dan. Erriko sarrerak itxiko ditugu gurdiz eta zuntoyez, eta an jarriko ditugu eskopetakin erriko eiztari onenak; eta ikusten dituztenian onera datozaela, ¡¡pun!! jo ta kia.

LUK. ¿Eta tiruak jotzen badute gaizto oyek daramaten bonba?

¡Agur gure erriyal! ¡Guziok aidian!

ALK. Ez, ez; kopetara apuntatu ta ¡zapla!, eta bertan ilda utzi biyak. ¿Zer ba, oyei utzi pesta besperan gure errira puñalez eta bonbaz beteta etortzen? ¡Ez orixe!

LUK. ¡Bejondeizula! Zu zera alkate jatorra zu.

ALK. Bando bat egiñ-erazteria nua, erriko guziak plazan bildu ditezen.

II

LENGUAK eta BLAX

- BLAX. (Korrika eta izerditan) Jainkuak digula arratsalde on.
- ALK. Baita zuri ere.
- LUK. ¿Zer abil emen orren estu eta larri, motell?
- BLAX. Nagusi jauna; or goiko bidetik natorrela, errin sarreran dagoan Xatorraneko sagardotegiko atetan zeuden bi gizasemek gaidetu dirate, ya erri ontan ostaturik onena zein dan, ta nik Lukax'nea esan diotet, neroni ango morroya naizela-ta.
- ALK. jiiE!!!
- BLAX. Ta orduan esan dirate nagusiari esateko, ostatuan dan tokirik onena ayentzat aukeratzeko, pestak pasatzera datoza-la-ta...
- ALK. ¿Ta zer modutakoak dira? (Iarrituta)
- LUK. ¿Ta zer itxuratakoek dira?
- ALK. ¿Ta nolako begiratua dute?
- LUK. ¿Bizardunak aldira?
- ALK. ¿Beltzeranak?
- LUK. ¿Zer zioten?
- ALK. ¿Ezer esan al dute?
- LUK. ¿Nolako izketa egiten dute?
- ALK. ¿Ezer bai al zuten eskutan?
- LUK. ¿Pardelik edo bai al zuten?
- BLAX. Bai; alki gañian bi pardel ikusi dizkio tet.
- ALK. ¿Pardel aundixamartak?
- LUK. ¿Nolakuak?
- BLAX. ¿Nolakuak? ¿Pardela nolakua izaten da?
- ALK. ¿Ta itxusik al dira?
- LUK. ¿Kopeta beltza al dute?
- BLAX. Ez, ez; gizon jatorrak dirala ematen dute.
- ALK. ¿Pardel ayek usairik botatzen al dute?
- LUK. ¿Kiatz zikiñik eta ola bai al zeukaten?
- BLAX. Usaya aditu diotet.

- ALK. ¿Azufriana al zan?
LUK. ¿Polborana ote zan?
BLAX. Bai zera; sagarduana.
ALK. Zuk bai uste.
LUK. ¡A gizajua! iduritu bai zuri.
ALK. Ta bertan dira beaz ¿e?
LUK. ¿Onera etorriko ote dira?
BLAX. Onezkerro laister emen dira.
ALK. ¿Bai ote?
LUK. ¿Zer esan dezu?
BLAX. Beriala emen dirala.
ALK. Banua, banua; gizon oyek erri ontan sartu ez ditezen, egiñalak egin bear ditugu. Errikoetxera nua, bear diran neurrik artzera. Aizak i, Blax, ua sekretarioarengana eta esan akiok nere etxera lenbailen etortzeko. (Blax juaten da) Ta zu, Lukax, zure bizia gorde nai badezu atera zaitia len-bailen ostattu ontatik zure diru ta guzti, bestela aberatsa zerala nola baitakiten, zuregandik asiko dira.
LUK. Arrazoi du, alkate jauna; orixe egin beariko det.
ALK. Ernai ibillibada. Agur, ta gero arte. (Dijo)
LUK. Gero arte bai. ¡Au dek au lana! ¡Zer ikusi bear ote degu! Orain sartu zaigu plaga ona berriz lenaz gañera. Pesta ederrak dauzkagu. Ez gaituk alper gaiztuan aditu ollo ta ollasku ta arkumiak ekartzen, odolkik eta lukainak egiten; sagardo, ardo, ta edari mota guziak aurretik jartzen, pestetan jende asko etorriko zitzaigulakuan. Nuan, nuan, lenbailen eixera nere diru pixkak atera ta iges egitera. Gañerakuan, or kompon. (Sartzen da etxeian)

III

MARTIN eta PELIX

(Pelotarik dira. Bi pardel besoetan dituztela, makutzik eta izerdiya kentzen sartzen dira biyak).

- MAR. Noizpait iritxi gaituk orratik.
PEL. Ez nai orduko, motell. (Uztien dituzte pardelak alki gañian)

- MAR. Nik uste baño turrutigo zeok erri au.
- PEL. ¿Bai aldakik pesta bespera izateko jende gutxi ikusi de-tala kale aldiar? Geyena arritu nauena, leyo eta ate guziak ere itxita zeudek, motell.
- MAR. ¡A! Guztik beren etxetan, biyarko etxiak txukuntzen ta bazkarik preparatzen adituko dituk-eta.
- PEL. Ala izango dek. ¿Gure ostatuba au ote da? (Etxeari begiratuaz).
- MAR. Au izango dek, *Luka x'enea* esaten dik eta.
- PEL. Arritzekua dek emen iñor ez agertzia. ¡Eup!
- MAR. Aizak, ¿eta zer modutako pelota-tokia ote da emen?
- PEL. Txarrena izanda ere, Beizamakua baño obia izango al dek beintzat.
- MAR. (Eskuni txistua emanet) A... zer... sasoya daukaten pelotan jokatzeko.
- PEL. Bai ta nik ere.
- MAR. Emen ere pelotazaleak izango dituk, eta biyar Meza nagi-giñorion partidua jokatu biar giñikek emengo biyen kontra.
- PEL. Bai, bai; pestetara etorri geran ezkerroz jokatu biar giñikek.
- MAR. Aizak eta ¿Donostiko Jai Alai'n irekin jokatu zuben pelotari ura erri ontakua etzan ba?
- PEL. Arrazoi dek. Emengo sakristauaren semea dek.
- MAR. Ederki zetorrekin; beste bat billatu eta biyar bi bita eskuz emen beñere ikusi ez dan bezelako pelota partidua jokatu biar diagu.
- PEL. Ez dek gaizki pentsatzen.

IV

LENGUAK eta LUKAX

- LUK. (Ateratzen da besopian saku dirua dubela) ¡Ene Jesus, Maria eta Jose! (Jendearri)
- MAR. Ikaragarriren bat egiñ biar diagu erri ontan.
- LUK. (Jendearri) ¡Galduak gera!

- PEL. Bai motell; aurtengo pestak gogoangarriak izango dizki-tek Mendibetarrak beren bizi guztian.
- LUK. (Neriak egin du).
- MAR. Gu ez gatxotek ezagutzen emen, eta arrituko dituk guk egingo degunakin.
- PEL. Erri guzia aidian jarriko diagau.
- LUK. ¡¡Ene. Au lana!! (Lurrera erortzen zayo besoian zeukan poltsa dirua)
- MAR. ¿Zer da ori? (Martíñek Lukax'eri)
- LUK. Ezer ez... zera... uisa (bildurrez) Barkatu jaunak (poltsa jasuz)
- PEL. Bejondeizula adiskidea; besta besperatik salku diruakin beaz ¿e?
- LUK. Ez da dirua.
- PEL. ¿Diruba ez dala? ¿Zer dira ba, intxaurrek?
- LUK. Ez, intxaurrek ez baño... (jendeari) Galdu naiz.
- MAR. Ezagun da aberatsa zerala. Olako dirudunak gustatzen zaizkigu guri.
- PEL. ¿Ta erri ontan aberats asko al da?
- LUK. Orla ba.
- MAR. ¿Eta erri ontakuai pestetan jostatzia gustatzen al zayote?
- LUK. Batzutan, batzutan.
- PEL. Bada sinixta zazu aurtengo pestetan ederki jolastuko zeratela.
- LUK. ¡¡Ai nere Jaungoiko!!
- MAR. ¿Zein gerala uste dezu zuk?
- LUK. Ez dakit bada.
- PEL. Oraintxe lenago ere itzegiteko bidea naiko eman degu gero guk, bai emen, bai Ameriketan ere.
- LUK. Sinisten det, bai.
- MAR. Guk korritu ez degun tokirik ez da. Esan liteke mundua ixkin batetik bestera pasa degula.
- PEL. Gure izena baster guztietai entzuna da.
- LUK. Bai, bai. ¿Zer nai zenduteke orain geyago?
- MAR. ¿Orain? Zuk jakingo dezu ondoena erri ontako berri ta, esan biar diguzu zer modutako aikatia dezuen.
- LUK. Oso ona da. (Alkate gizarajus)

- MAR. Ori bear degu bada. Oraiñ guazen ostattura bideko autsak kendu ta pixka bat txukuntzera.
- PEL. Arrazoi dek (Txalo juaz) ¡Eup! ¡Eup! ¡Ostalari!
- LUK. ¿Zer nai dute?
- MAR. ¡Ara! ¿Zu altzera ostalarria?
- LUK. Bai jauna.
- MAR. Bada ostattuba nai genduke egun batzuk pasatzeko.
- PEL. ¿Ez al zaitu mutill gazte batek nola gatozen jekiñan gañian jarri?
- LUK. Bai... ez... ez dakit bada.
- MAR. Au gizajon bat dek.
- LUK. (Bere artian) Bai, naiko gizajo.
- PEL. ¿Bañan zertan gelditzen zera, bai edo ez?
- LUK. (Bayetz esan bearko bestela etxea aidian botako dirate-ta).
- MAR. Goazen bada.
- LUK. Sartu, sartu.
- PEL. Ostatu ederra dala zidurik onek.
- MAR. Alaxe ematen dik. (Pelotarik sartzen dira ostattura eta Lukax ateratzen da kanpora)
- LUK. Nuan, nuan azkar alkateari esatera kuadrillako bi gaizgille nola dauden nere ostattuan.

V

BLAX, DANBOLINTERUAK, AGUAZILLA, MUTILL, KOXKORRAK

(Mutill koxkorraak ateratzen dira danbolinaren aurretik Ien bezela saltoka, aspaka ta irrintzika)

- AGUA. (Makilla jasosz, mutillai) ¡Alto! ¡geldi guztik emen!
- Mutill. ¿Zer dala-ta?
- AGUA. Alkatiaren aginduz.
- MUT. Guk alkatiaren baimena badegu pesta-aurretik soñua juaz ibiltzeko.
- AGUA. ¡Ixo! Guztik, gure erriya galtzeke arrixkuau dagoanian, zuen baimenak eta soñuk alde batera utzi bear dituzute.
- Guztik. ¡¡¡E!!! ¡¡¡Zer!!! ¿Gure erriya galtzeke arrixkuau dagoala?

- AGUA. Bai.
- BATEK. ¿Zer gertatzen da ba?
- AGUA. ¿Zer gertatzen dan? Erri ontara bi lapur izugarrizkoak sartu zaizkigu, erri guztia erre, kixkali, txetu, txikitu, ezereztu, apurtu, ausi, birrindu ta urratzera.
- Guzik. ¡¡¡Ene!!!

VI

LENGUAK eta LUKAX

- Luk. (Sartzen da) Bai, ta gañera etxe ortan daude.
- BLAX. Nik Xatorraneko sagardotegin ikusi ditutenak. Eta ¿zer egiñ bear degu orain?
- AGUA. Alkatiak agindu du pesta kontuak utzi ta erritar guztik plazan biltzeako beren armakin.
- Luk. Ederki, ederki; bestela lenbizi nere ostattua botako luteke-ta.
- AGUA. Orain guztiok plazara.
- Guzik. Goazen bada. (Lukax eta Blax ez gañera kuak dijoaz)
- BLAX. Guztik badijoaz ¿eta ni emen bakarrik? ¡Ez orixe! (Dijoaz)
- Luk. E... zu... Blax, zuk ez dezu juan bear.
- BLAX. ¿Zer ba? ¿Zer egin bear det nik emen? Banua.
- Luk. Ez, ez; zuk emen etxiari kontu artzen egon bear dezu, badakizu nere aberastasun guztia etxe ortan dagoala-ta.
- BLAX. Bedorren aberastasunak baño nere bizia lenagokoa da orratik.
- Luk. Gizona, orrenbeste etzaitezela ikaratu; tori eskopeta au, eta lenbiziko ateratzen danari, tira.
- BLAX. ¿Zer, nere bizi guztian atxurra besterik ibilli ez duten esku oyeten eskopeta au artu?
- Luk. Bai gizona, bai; orrelako estuasunetan gogor egin bear dík batek. To, ta ernai egon. (Eskopeta emanaz)
- BLAX. ¡Ai nere Jaungoikoa! ¿Nik orain zer egin bear det onekin?
- Luk. Ago, eta ez aikela izan kaikua. Eskopeta artu zak orrela, eta batera eta bestera ibilli bear dík beti atera begira, eta

- zerbaiteen soñua aitzen badek, jarri beraren aurrean eta sartu tripan batetik bestera tirua.
- BLAX. Danik eta txintatekorik txikiiena entzun orduko an nua korrika emendik.
- Luk. Baña gizona, ¿zerk bildurtzen au orrenbeste?
- BLAX. ¿Ni? Ezertxok ere ez, bañan dar dar dar jartzen naiz aurki guztiok aldian ibilli bear degula pentsatzean.
- Luk. (Baita ni ere) Tira, Blax, ire kontu gelditzten dek guztiya, ta agur. (Joaten asten da)
- BLAX. ¡¡¡Atxis!!!
- Luk. ¡¡¡Ai!!! (Karraxika ta saltoak egiten)
- BLAX. ¡¡¡Ai!!! (Berdin)
- Luk. ¿Zer gertatzen zaik motel? (Bildurrez)
- BLAX. Nik ez dakit; ez dei ezerixore ikusi.
- Luk. ¿Zergatik asi aiz bada karraxika?
- BLAX. ¿Ni karraxika, bedorri ari da-ta?
- Luk. ¡¡¡Ara!!! Ara emen gaizgille oyek utzitako pardelak.
- BLAX. ¡Ori esan!
- Luk. Askatuta ikusi bear degu zer dauzkaten.
- BLAX. Jum... jum... polikli ibilli gero.
- Luk. Bai gizona, bai. Itxi zak atea. (Itxitzen du)
- BLAX. ¿Eta ikusten begaitue pardelak askatzen?
- Luk. ¿Zer ikusi bear gaitue? (Pardel bat a-katzen asiaz) ¡¡¡Zer da au!!! ¡¡¡Txapel gorriya!!!
- BLAX. Ara, ¿ta botill ontan zer ote dago?
- Luk. ¿Ikusi? (Botileko txartela irakurria) «Petroleo Gal».
- BLAX. Gal... Gal... Gal... galduak gera. ¡Ene! Ta gauza borobil oiek ¿zer ote dira? (Pelotangatik)
- Iñaki Blax. ¡Jesus! ¡Bonbak!
- Luk. Kontuz, kontuz, lertu gabe. ¡Au lana! Beriala banua alkateari esatera.
- BLAX. Bai ta ni ere.
- Luk. ¿Zer? Ik emen egon biar dek.
- BLAX. ¿Ni bakarrik?
- Luk. Ez, eskopetarekin.
- BLAX. Baño...

- Luk. Egon, egon ni alkatearen etxetik etorri arte, eta bitartean zerbait sentitzen badek abixatu neri.
- BLAX. ¿Baña nola?
- Luk. Tiro bat aidian botiaz. (Dijo)
- BLAX. Au lana... Bildurrez eta ikaraz ya illian nago. ¿Zer egin bear det nik emen? ¡A Blax, Blax, Blax.! Erruki aut. Iriak egin dik. Bada ez bada ere pardel au bonba ta guzti gorde egingo det, bestela lapur oyei gogoratzen bazayote bonba oyetako bat botatzia, ¡kaxo Blax orduntxe!

VII

BLAX (PELIX eta MARTIN leyatik)

- PEL. E, aizu, ostalari...
- BLAX. Ai... Ai... Ai... (Bildurrez)
- MAR. ¿Zer gertatzen zayo orri?
- BLAX. Nere Jesukristo jauna... Jaungoiko... eta gizon...
- PEL. Ostalariyaaaaa (Buliaka)
- BLAX. Emendik alde egin nai nuke, bañan indarrik ez dantza, belaunak ere *klax* eta *klux* egiten dirate.
- MAR. ¡¡E!! Aizkide...
- PEL. Gorra izango dek.
- MAR. ¿Poxpolo bat bai al dezu?
- BLAX. (Oraintxe bai guriak egin duala, poxpolo eske asi dira-ta)
- PEL. Motell, orrek ez dik aditzen, eta tira-akiok lore-ontzi au ia entzuten duan. (Botatzen diote lepotik lore-ontzi bat, eta Blax, an ikustean, ateratzen da korrika ta saltoka, esanaz)
- BLAX. ¡¡Suba, suba, bonba!!

VIII

PELIX ta MARTIN (leyotik)

- PEL. ¿Ikusi al dek kaiku ori?
- MAR. ¿Bañan gu zer gerala uste ote dute oyek?

- PEL. Motell, guazemak ostatu ontatik, pulamenturik etze-gok-eta.
- MAR. Bai, bai; ostatturik onena au baldin bada gzer izango ote dira besteak?
- PEL. Arrazoi dek.
- MAR. Jetxi gaitean eta guazemak emendik kalera (leyua itxi eta izkutatzen dira)

IX

ALKATIA, LUKAX, BLAX, AGUAZILLA TA MUTILLAK armakin.
Barrendik PELIX eta MARTIN

- Luk. Alare oraindik osorik dago nere etxia. (Bildurrez)
- ALK. ¿Eta nundik eta nola bota dute bonba ori?
- BLAX. Egiya esateko, ez dakit ez nundik eta ez nola bota duten; bakarrik esango diot ez dakitelako bizirik nola nagoen.
- ALK. Tira aguazilla, sartu aurrera zer gertatu ote dan jakiteko. Jaso itzak lenbizi bonba-puska oyek.
- AGUA. ¿Bonba puskak? Oik eltze zarren baten puskak dira.
- BLAX. Ez, ez, alkate jauna. Emen bada eltze zarra baño soñu aundiagua ateratzen duben beste zerbait.
- ALK. Ikusi itzazute bada bi pardel oyek. Onenian zerbait agertuko da-ta.
- MAR. (Barrendik ate-joka ta bullako) Bañan gzer gertatzen da emen? ¿Zeñ arrayok itxi du atia?
- PEL. Ostalari: iriki zazu azkar atia, bestela...
- BLAX. Ez, alkate jauna, ez iriki atea; irikitzen badu guziok aidian botako gaitue-ta.
- MAR. Azkar irikitzen ez badezute, etxeari su ematera goaz gero.
- Luk. ¡E! ¿Nere etxeari su eman? Iriki zayozute azkar. Iriki.
- ALK. Aguazilla, ia kontuz kontuz irikitzen dezun.
- AGUA. Ez alkate jauna; ori beorren egitekoa da. Ortarako, orrelako estuasunetarako egin zuten beorri alkate.
- ALK. ¡Ustel... aul... bidurti... esereza! Iriki zak azkar, edo bestela...

- AGUA. Bai, g̱ta zerbait egiten badirate?
ALK. ̱Irikiko dek ala ez?
AGUA. Banua ba...
ALK. ¡A gaizgille ikaragarriak...! Oraintxe erruki zaituztet.
(Atea irikitzet dio aguazillak)

X

LENAK, PELIX ta MARTÍN

- PEL. Alare, garaya zenduen.
MAR. ̱Zer pasatzen da emen orrenbeste jendekin?
AGUA. ¡¡Ara!! (Alai) Pelix ta Martíñ. Kaxo jaunak. (Eslou emanaz)
MAR. ̱Zer diok, Kokotx?
PEL. ̱Aspaldian zer modu, motelli?
AGUA. Ederki, g̱ta zuek? ¡Ez diguzue bildur txarra eman!
MAR. Bañan... g̱gu arrapatzera etorri al zerate?
AGUA. (Umlí) Bai baña, barkatu; erri ontako jendiak uste izan
dute mendian dabiltsan gaizgille ikaragarri oietakoен bat-
tuek zeratela, eta orregatik etorri gera armatuta.
PEL. ̱Bañan gaizgille itxura al daukagu, edo zer?
AGUA. Ez baño... barkatu.
MAR. Ez da ezer; barkatua dago.
AGUA. Jaunak: nere ḇi lagun oyek pelotari onenetakuak dira.
ALK. A, baño jaun oyek ̱pelotarik al dira?
MAR. Bai jauna, bai.
Luk. Poztutzen naiz. Ez ditugu estuasun txarrak eraman.
ALK. ̱Beaz pelotarik? Egoki etorri zerate. Biyar erri ontako
pestak dira, eta Meza nagusi ondorian pelota partidu bat
jokatu bear dezute.
MAR. Bai, ta pozik.
PEL. Gu erri ontako pestak pasatzena etorri gera, eta gustora
jokatuko degu partidua.
MAR. Baita Meza nagusin biar bada ere pozik kantatuko degu.
ALK. Ederki zeok. ¡Bejondeizuela! Artzaldian aurreeskua ere
izango da nai badezue, dantzatzeko.

- PEL. ¿Aurrekua dantzatu? ¡Ortan gaituk bada mutillak!
- Luk. Beaz pelotan, Meza kantatzen ta aurrekua dantzatzen dakizutenak zerate ¿e?
- MAR. Bai; pestara etorri geran ezkero, jolastu nai genduke, alai ta umore onian.
- ALK. Ederki.
- AGUA. Aurtengo pestak ustez tristeak izango ziralakuan geunden, eta bitartian egundaño Mendibe'n egiñ ez diran beze-lako alayak izango dira.
- ALK. ¡¡Gora Lukax!!
- GUZIK. ¡¡Gora!!
- PEL. ¿Sagardo onik eta bai al-dago emen?
- BLAX. ¿Sagarduak? Bai, ta bikañak, txinparta dariotenak.
- MAR. Ori bear degu, ori.
- ALK. Guazen bada guztioik apaltzen.
- AGUA. ¿Eta begira dauden jaun oyek? (Ikusliangatik)
- Luk. Baita oyek ere. Tira, Blax, nere izenian beriso bat botiaz konbidatu itzak.
- BLAX. Estuasun ta larriya pranko Pasatu ondorenian, Aparitxo bat biar degu egiñ Guztiz umore onian;
- Beok ere orain, etorri bitez Jatera gukin batian; Jarriko da gaur Lukax'enia Bonbarik gabe aidian.

ZAPIYA



EUSKALERRIAREN ALDE

La Revista EUSKALERRIAREN ALDE se titula «Revista de cultura vasca» y esa frase comprendía la idea que perseguimos y las esperanzas que abrigamos. Se ocupa exclusivamente de asuntos relacionados con el País Vasco; dentro de este campo abarca cuanto no se halle contaminado con la política palpable.

El esclarecimiento de la historia del País Vasco es uno de nuestros anhelos principales, y a llevar luz sobre tiempos pasados tienden con preferencia nuestros esfuerzos.

Pero no por eso vivimos momificados con la vista vuelta atrás. Tanto como otras miramos adelante, y si con ahínco muchas veces dirigimos la vista al ayer, otras tantas la repliegamos al hoy y la espaciamos al mañana. Queremos recuerdos, sí, pero también realidades y esperanzas.

Nos compete cuanto se relaciona con la vida de nuestro país: historia, heraldica, arqueología, viajes de extranjeros por Euskalherria, sus opiniones acerca de nuestras cosas, notas literarias, novela, poesía, música, crítica biográfica, bibliografía, arquitectura, pintura, arte dramático... Y, naturalmente, dedicamos atención especial a la lengua vasca, flor que marchita nos entregaron nuestros antepasados y que procuraremos entregar vivificada a nuestros sucesores.

Cuanto con el País Vasco tenga algo que ver nos interesa grandemente. Fuera de esta esfera de acción, nada más atrae; dentro de ella nos apartamos respetuosamente tan sólo de los pleitos en que las pasiones ciegan y de los asuntos que no es posible robar sin que salte la chiripa ediosa de la discordia.

Euskalerriaren alde

ADMINISTRACIÓN
Calle de Fuenterrabía, 14, bajo
SAN SEBASTIÁN

El subscriptor de EUSKALERRIAREN ALDE recibe puntualmente en su domicilio todas las secciones de que se compone la Revista, recibirá asimismo los numeros extraordinarios (1), suplementos, otras encuadernables, y toda publicación que la Revista costee con destino a sus suscriptores. A fin de cada año recibirá también, para cada tomo, detalladísimos índices, redactados por orden de autores y por clasificación de materias.

La suscripción anual en estas favorabilísimas condiciones importa 20 pesetas anuales, que la Administración las cobra por giro de una letra, si el interesado no las ha enviado antes en cualquier otra forma.

(1) EUSKALERRIAREN ALDE ha publicado ya cerca de una docena de números extraordinarios, de los cuales varios tienen más de 100 páginas hermosamente ilustradas. Los últimos son los dedicados al Congreso de Oñate, y merced a esta Revista, sus suscriptores disponen de una síntesis exacta de todas las conferencias y cursillos de la reproducción literal de todas las conclusiones, y de una amplia relación de cuanto en Oñate sucedió con motivo del Congreso.



- Si le interesa la historia -

-- Si le interesa el idioma --

Si le interesa la bibliografía

-- Si le interesa el arte --

- Si le interesa la literatura -

En una palabra:

Si no es usted indiferente

a la vida del

PAIS VASCO

debe recibir para su biblioteca, la Revista
de cultura vasea

EUSKALERRIAREN ALDE